

Gobernuek herrialdeen jarduera ekonomikoan egiten duten esku-hartzeak herriarren ongizatearen gainean duen eragina aztertzean, hainbat hamarkadatan zehar gobernuen tamaina ideala izan da eztabaidagai nagusia. Adierazle hori, aurrekontuen ikuspegitik, gastu publikoaren mailarekin identifikatu izan da, BPGri lotuta. Hala ere, iragan mendeko laurogeiko hamarkadaren erdialdean, kezka berri bat piztu zen: sektore publikoak bere jarduerak garatzeko orduan duen eraginkortasunaren gaineko kezka, batez ere maila akademikoan. Une hartan, herrialde garatuetako sektore publiko gehienek inoizko mailarik altuena zuten gastu publikoan, eta, paraleloki, zerga-presioan eta defizit publikoan. Hala ere, aitortu beharra dago sektore publikoaren eraginkortasunaren gaineko interes hori berez bigarren mailan zegoela, garrantzi handirik gabe, agenda politikoetan batez ere zerga-diziplinaren eskakizunak gailentzen baitziren.

Iragan mendeko laurogeita hamarrek hamarkadan, Batasun Ekonomiko eta Monetarioko azken fasera sartu behar ziren Europar Batasuneko estatu-kideetako zergak finkatzeko programak aplikatzeko beharraren eta finantza publikoen jasangarritasun-arazoen ondorioz, ikertzaile eta analistak sektore publikoen funtzionamenduan hobekuntzak sartzen hasi ziren, horrek aurrekontuetan aurreztea eragin zezakeelakoan. Zehazki, azterketa eta proposamenek honako ekintza hauek aurreikusit zituzten: gastu-programetan jaso behar ziren neurriak hautatzea, helburu zehatzak identifikatzea, eta hartzaileen hautagarritasun-irizpideak berrikustea, hornidura publikoko zerbitzu eta azpiegiturak eskaintzeko orduan sektore pribatuak duen presentzia geroz eta handiagoa ahaztu gabe. Garai horretan sektore publikoaren eraginkortasunaren gainean sortu zen kezka horren beste adibide bat ere badago: alderdi antolatzaile eta instituzionalek hartu zuten garrantzia. Izan ere, zabaldu zen ustearen arabera, baliabide publikoen kudeaketan eraginkortasun-maila egokiak lortu ahal izateko funtsezko baldintza zen arkitektura antolatzaile eta instituzional egokia izatea, hots, edozein erakunde ekonomiko konplexuren berezko koordinazio-arazoei eta pizgarriei erantzun eraginkorrek emateko gai dena (Onrubia, 2005).

XXI. mendea hastearekin batera, jarduera publikoak baldintza ekonomikoaren arabera baloratzeko orduan ikuspegi berritzaileak sartzen dituen kontzeptu bat zabaldu da, batez ere aurrekontu-baliabideekin (baina ez horiekin soilik) finantzatu-tako jardueretan: finantza publikoen kalitatea¹. Zalantzarik gabe, kontzeptu erakar-

¹ «Finantza publikoen kalitatea» kontzeptua hasiera batean zerga-politikaren diseinuarekin eta aplikazioarekin lotu zen. Hala, Europar Batasuneko helburu estrategiko berri moduan sartu zen Europako Kontseiluan (2000ko martxoaren 23an eta 24an Lisboan egindakoan) adostutako Estrategian,

garria da dituen konnotazio baloratiboengatik, baina, kalitate terminoaren atzean dauden ezaugarri desberdinen zioz zaila da analisi ekonomiko aplikatuan zuzenean sartzea, gutxienez bakartasun metodologikoarekin.

Hasierako ikuskeran –zerga-politikaren jardunarekin lotuta–, finantza publikoen kalitatearen kontzeptuak, Thöne-ren arabera (2023), gai kualitatibo eta egiturazko asko jorratzen ditu, eta, hala, gastu publikoaren osaerak epe luzera hainbat helburutan duen eragina aztertzen du. Helburu horien artean aipatzekoak dira, besteak beste, hazkunde ekonomikoa, ingurumen-jasangarritasuna, eta azpiegituren eta giza kapitalaren gaineko inbertsioa, azken horren oinarritzko zutabe moduan hartuta hezkuntza, osasuna, eta familia- eta genero-politika. Bi hamarkada geroago, eta 2008an hasitako Atzeraldi Handiak eta haren ondorengo susperraldiak politika-fiskalean izan zituzten ondorioen ostean, aurrekontua finkatzeko prozesu zorrotzekin, Rodríguez-Vivesek (2019) adierazten duenez, finantza publikoaren kalitatearen kontzeptuaren gaineko interesa berpiztu egin zen. Hori horrela, kontzeptu hori, dimentsio anitzekoa zela aitortuta, ertz desberdinetatik jorratu zitekeela antzeman zen, baina, kontuan hartuta, ikuspegi praktikotik, epe luzerako hazkunde ekonomikoa sustatzeko gai den aurrekontu-osaera bat bilatzeari ekin beharko liokeela, desberdintasunak areagotzea eragin gabe.

Azken bi hamarkada horietako esperientziak agerian uzten digu finantza publikoen kalitatea politika bakoitzari esleitutako aurrekontu-baliabideen bolumenaz, gastu publikoaren osaera kualitatiboaz eta haren finantzaketa-forma zehatzaz harago doala. Finantzen kalitateak eragin nabarmena dauka gobernuek, beren jurisdikzio-maila desberdinetan, gizartearen eskariei eraginkortasunez erantzuteko duten gaitasunean, bai ondasun eta zerbitzu publikoak hornitzerako orduan, bai desberdintasunen eta pobreziaren aurka borrokatzeko orduan, eta, ondorioz, gizarte-ongizatea sustatzeko orduan, hazkunde ekonomiaren eta errentaren eta aberastasunaren birbanaketaren bidez. Afonso *et al.*-en arabera (2005), zerga-politikak kalitate altukoak direla ulertzeko, hazkunde ekonomikoa sustatu behar dute, honako baldintza hauek betez: hazkundearen eta finantza publiko saneatuen aldeko inguru instituzionala eskaintzea; gobernuak ondasunak eta zerbitzuak hornitzeko duen konpromisoa bere funtsezko zereginera mugatzea; sektore publikoaren hazkundera sustatzen duten eta baliabide publikoen erabilera eraginkorra indartzen duten pizgarriak ezartzea; gobernuaren jarduerak, eta, hala badagokio sektore pribatuarenak finantzatzea, zerga-sistema eraginkor eta egonkor baten bidez; eta egonkortasun makroekonomikoa babestea, kontu publiko egonkor eta jasangarrien bitartez.

Kalitateak sektore publikoaren jardunarekin duen loturaren zioz, nire iritziz, beharrezkoa da kalitatearen kontzeptuaren irismena zerga-politikaren eremu tradizional makroekonomikoaz harago zabaltzea, kudeaketa publiko «ona» garatzeko

politika makroekonomikoak koordinatzeko ekintzen barruan (aurrekontuaren saneamendua, finantza publikoen kalitatea eta jasangarritasuna).

funtsezkoak diren elementuak sartuz (instituzionalak, antolaketakoak, gerentziakoak eta ebaluaziokoak)². Zaila da esku hartzeko eszenatoki bat irudikatzea, kalitatezko finantza publikoekin, baldin eta ez badira zuzen identifikatzen zerga-politikek bete behar dituzten helburuak, gizartearen lehentasunen arabera, ez badira sistematikoki erabiltzen proiektu alternatiboak aukeratzeko eta programa publikoak diseinatzeko irizpide ekonomikoetan oinarritutako metodoak, ez badira erregulartasunez aztertzen proiektu eta programa horien eraginkortasuna eta efizientzia, ez bada hartutako neurriek duten eragina ebaluatzen edo analisi eta ebaluazio horien guztien emaitzak aurrekontuak ezartzeko prozesuetan txertatzen ez badira.

Praktikan, finantza publikoaren kalitatearen eta diru-sarrera eta gastu publikoen kudeaketa eraginkorraren arteko lotura, neurri handi batean, ondo funtzionatzen duen ebaluazio-sistema instituzional bat egotearen menpe dago. Eremu publikoan, ebaluazioa informazioa sortzen duen prozesu bat da eta, analisi ekonomikoko tresnak erabiliz, aukera ematen du programa eta zerbitzu publikoek lortutako epe ertain eta luzeko emaitzak eta baliabideak lortzeko, teknika kuantitatibo bidez zehazte aldera ea eraginkorrak diren, gizarte-errentagarritasunari erreparatuta (Onrubia eta Santín, 2017). Hala, ebaluazioa, bere zentzurik zabalenean –bolumen monografiko hau osatzen duten artikuluen gaikako hautaketan islatutaezinbesteko tresna da, bai esku-hartze publikoen lehentasunezko helburuak hautatzeko informazioa sortzeko, bai horietako bakoitzari, eraginkortasun-irizpidearen arabera, horiek lortzeko beharrezko aurrekontu-baliabideak esleitzeko, bai eta horiek eskuratzeko modurik neutralena eta ekitatiboena zehazteko ere. Horrenbestez, informazio hori funtsezkoa da kudeaketa publikoa garatzeko orduan hartu behar diren erabakiak kontzienteak izan daitezen baliabide publikoen erabilera eraginkorrekiko eta, lehen esan dugun bezala, jarrera antolatzaile eraginkorra lor dezaten. Azkenik, kontuan hartu behar da politiken ebaluazioak aukera ematen duela finantza publikoen kudeaketan kontuak eman eta gardentasunez aritzeko. Izan ere, azterketa objektiboa egitean, ebidentzia enpirikoa lortuta, ekintza publikoa gizarteari zabaltzea sustatzen da, baliabideak xahutzeko, ustelkerian aritzeko eta funtsak bidegabeki erabiltzeko arriskuak murriztuz.

Ekonomiaz aldizkariko monografiko hau hamar artikuluk osatzen dute, eta gai nagusia finantza publikoen kalitatea da, betiere ebaluazioaren ikuspegitik. Hautatutako lan originalek aukera ematen dute, nire ustez, harreman honen funtsezko alderdiak lantzeko. Horren barruan sartzen da, esaterako, ebaluazioaren instituzionalizazioarekin lotutako gaiak jorratzea; politika publikoak osatzen dituzten proiektuak eta programak eraginkortasun ekonomikoko irizpideen arabera hautatzeko tresna moduan ebaluazioak erabiltzea; edo aurrekontuak ezartzeko prozesuetan emaitzak sartzea, gastu-programen eraginkortasuna aztertu, jarraipena egin eta baloratzeko edo, ikuspegi makroekonomikotik, zerga-politikaren kalitatea balioesteko tresna gisa.

² Kudeaketa publiko on baten printzipioei eta horien lorpenari buruz, ikus Albi eta Onrubia (2018).

Ángel de la Fuente eta **Alfonso Novales** sinatzen duten artikuluak, monografiko honi hasiera ematen dionak, finantza publikoen kalitatea sustatzeko oso esanguratsua den gai bat jorratzen du: politika publikoen ebaluazioa garatzeko esparru instituzionala. Lan honek, Espainiako kasuan oinarrituta, lehenik eta behin politika publikoak ebaluatzeko sistema zorrotz orok bete behar dituen printzipio orokorrak berrikusten ditu, bereziki erreparatuz ebaluazio-organoak botere publikoarekiko izan beharko lukeen independentziari. Jarraian, egileek zalantzan jartzen dituzte iraganean Espainian ebaluazioaren kultura ezartzeko egin izan diren saiakerak, eta ondoren zehatz-mehatz aztertzen dute Politika Publikoen Ebaluazioaren Institutuzionalizazioari buruzko abenduaren 20ko 27/2022 Lege berria. Eduki nagusien balorazio kritikoa modu argudiatuan eskaini ondoren, artikuluak hainbat proposamen aurkezten ditu, egileen ustez baligarriak izan daitezkeenak Espainian politika publikoen ebaluazioa hobetzeko.

Monografikoko bigarren artikuluan, politika publikoen ex-ante ebaluazioak balio sozialeko arrazoiaren ondorioz bete behar duen zeregin garrantzitsua jorratzen du **Ginés de Rus-ek**. Lan honek zehazki lantzen du kostua-onura azterketa (KOA), hots, ebaluazio sozioekonomikoko tresnarik finkatuena eta zabalduena. Horren helburua proiektu eta politika publikoek gizarte-ongizatearen gainean duten eragin garbia kalkulatzeko da. Horren arabera, KOAren kontzeptu integrala bere ondorioetan oinarritzen da, eta, hala, tresna hau bat dator ekonomialariak balia bideak esleitzeko prozesuen aurrean duen arazoitze-moduarekin. Lan horretan, egileak berriaz nabarmentzen du KOAk jarraitutako ebaluazio-irizpide praktikoen oreka orokorraren teorian izan duen inspirazioa, bai eta horrek ematen duen informazioaren gizarte-balio eztabaida ezina ere, inbertsio publikoko proiektuak edo prestazio-izaerako gastu-programak aukeratzean nahiz alternatiba arautzaileak hautatzean, esku-hartze publikoko beste jardura batzuen diseinua ahaztu gabe. KOAk gaur egun duen praktikarekin lotuta, artikuluak, Espainiako dirulaguntzen politikaren analisisan oinarritutako ilustrazioaren bidez, politika publikoko gomendioei eusteko erabilgarritasunari lotutako elementu kritiko batzuk planteatzen ditu.

Ignacio Moral Arcek eraginaren ebaluazioaren berrikuspen zorrotza egiten du. Ebaluazio-formula horrek gastu-programak edo neurri arautzaileak sartzeak eragindako kausa-ondorioak neurtzen ditu, sektore publikoko jardura-eremuetako edozeinetan. Artikuluak, lehenik eta behin, eraginaren ebaluazioak esku-hartze publikoen kaliterako duen esangura lantzen du, erabakitzaileak joratu nahi dituen aldagaien gaineko ondorioen kausa-ebidentzia kuantitatiboak eskuratuz. Lanak bere ezaugarri nagusiak azaltzen ditu, bereziki helduz hura aplikatzeko orduan dauden bi arazo nagusiri: kontrafaktikoen gabezia –ebaluatutako neurria egon ezean gertatuko litzatekeena antzemateko ezintasuna– eta hautaketa-hutsunea –ebaluatutako neurriaren zioz tratatu diren eta tratatu ez diren taldeak mugatzeko orduan dagoen ausazkotasun-faltak sortua–. Jarraian, dauden metodologia nagusiak aztertzen ditu artikuluak, ebaluazio esperimentalen diseinuan duten erabileraren arabera antolatuta; besteak beste: ba-

tez bestekoen aldearen teknika (kuasiesperimentalak), bikoteak egiteko eta *propensity score matching* izeneko metodoak, aldeetan aldeak zehazteko metodoak –egokia da antzeman ez diren aldagaiak egotearen ziozko hautaketa-hutsuneak zuzentzeko–, aldagai instrumentalen metodoa –egokia da programetako partaidetzari lotutako endogenotasun-arazoak dituzten kausa-harremanetan– eta jarraitasunik ezeko erregresioaren metodoa –onuradunaren hautagarritasuna balio jarraituarekin antzeman daitezkeen ezaugarrien menpe dagoenean aplikatzen dena–. Horietan guztietan beziki erreparatzen zaie nahitaez aplikatu beharreko kasuei eta eskatutako informazio-beharrei, beren ahalmen eta muga nagusien balantzea eginez.

Jordi Baños Roviraren artikuluak ekarpen berritzaile bat jasotzen du politika publikoen ebaluazioari buruzko literaturak jorratu ohi dituen gaien gainean; zehazki, aurrekontu publikoak ezarri eta politikak ebaluatzearen arteko integrazioa. Egilearen esanetan, administrazio publiko asko saiatu dira aurrekontuak emaitzen arabera ezartzen, baliabide publikoak esleitzeko eraginkortasuna hobetu eta kudeaketari operatibotasun handiagoa emateko. Hala ere, aurrekontu-erreforma hauen arrakasta, egilearen hitzetan, aurrekontuen gaineko erabakiak hartzeko orduan politiken ebaluazioak ematen dituen ebidentzien erabilera eraginkorraren menpe dago. Bestela esanda, aurrekontuak ezarri eta ebaluazioak egitearen artean integrazio eraginkorra lortu behar da, zailtasunak egon arren. Aurkeztutako artikuluak integrazio horren egungo egoerari eta aurrekontuak egiteko ebaluazioaren erabilerari buruzko ikuspegi orokorra azaltzen du, eta konexio hori eraginkorra izateko dauden zailtasun nagusiak (literaturak nahiz esperientzia konparatuak azaldukoak) identifikatzen ditu. Azkenik, egileak hainbat gomendio proposatzen ditu administrazio publikoetan aurrekontuak ezartzearen eta ebaluazioak egitearen arteko integrazioa indartzeko. Gomendio horiek eragina dute bai ebaluazioen esparru instituzionalean, bai aurrekontu-sisteman.

Borja Gambau Suelves-ek eta **Carmen López Herrerak** oso egungoa den artikulu bat idatzi dute. Bertan, Spending Review izenekoek Espainian ebaluazioa instituzionalizatzeko orduan betetzen duten zereginari buruz eta figura horren gainean espero beharko zitekeenari buruz hausnartzen dute. Politika publikoen ebaluazioa instituzionalizatzeko Espainian onartu berri den lege-esparrua da beren lanaren abiapuntua. Azken hori nahitaez bete beharreko mugarriztat jotzen da, finantza publikoen kalitatea hobetzeko. Horrenbestez, egileen hitzetan, lege berriak urteetako esperientziaren lekukoa jasotzen du (esperientzia batzuk arrakastatsuak dira eta beste batzuk huts egin dute), arrakasta izateko erronka garrantzitsuei aurre egin behar diela ahaztu gabe. Spending Review izenekoak (edo gastu publikoaren berrikuspenak) tresna erabilgarria dira gastu publikoaren kalitateari buruzko lezioak ikasteko, irizpide ekonomiko desberdinak kontuan hartuta eta ebaluatutako politika eta programetan ezarritako helburuak lortzeko gaitasuna gogoan izanda. Lanak Spending Review horien jatorria jasotzen du, testuinguru konparatuan, bai eta horien helburuen bilakaera eta gastuaren jardunbide onenak ateratzeko gaitasuna ere. Zerga

Erantzukizuneko Agintaritza Independentek (AIREF) egindako garapenean, lortutako mugari eta xedearen balantzea egiten da. Azkenik, egileek politika publikoen ebaluazioari buruzko araudi berriak aurrean dituen erronka instituzionalak identifikatzen dituzte, eta Spending Review figuraren eta AIREFri agindutako eskumenen artean oreka egokia aurkitzeko beharra azpimarratzen dute.

Aurelia Valiño Castroren artikulua Espainiako politika publikoen ebaluazio ekonomikoaren gaineko esperientzia nabarmenenen ikuspegi oso zabala eskaintzen du. Ebaluazioaren artearen egoera horrek herritarrei kontuak emateko eta kudeaketa publikoaren funtzionamendu onerako ezinbestekoa den jarduera honi balioa ematea du xede, biak ere elementu funtsezkoak baitira finantza publikoen kalitatea igotzeko. Esperientzia sektorial aplikatutik, lan hori sartzeak balorazio egokia egiten du erabaki publikoak hartzeko ebaluazioaren esangurari eta irismenari buruz, bai eta baliabide publikoak esleitzeko orduan egiten duen ekarpenari, eta, azken batean, herritarren ongizatea areagotzeko ematen duen laguntzari buruz ere. Egileak, gainera, ebaluazioaren instituzionalizazioaren irismena aztertzen du estatuko nahiz erki-degoko erabakiak hartzeko orduan, eta, era berean, politika publiko nagusietan aurkitutako aurrerapenak azaltzen ditu. Azkenik, lanak hainbat gogoeta egiten ditu prestakuntza akademiko espezializatuak ebaluazio-jarduerak finkatzeko orduan eta ebaluazio-kulturara ekarpenak egiteko orduan duen zereginari buruz.

Alderdi banatzaileek ebaluazio ekonomikoan duten garrantzia jorratzen du, hain zuzen ere, **Jorge Onrubia Fernándezek** eta **Maria del Carmen Rodado Ruizek** idatzitako artikulua. Tradizionalki, programa publikoen ebaluazio ekonomikoak zerbitzu publikoen eraginkortasuna neurtzeko edo programa eta proiektu publikoetan erabiltzen diren baliabideak neurtzeko helburua izan du. Eraginkortasuna neurtzea zaila denean, ebaluazioek hartutako neurrien eraginkortasuna neurtuko dute, helburuak bete ote diren aztertuta. Ondorioz, egileek azaltzen dutenez, ebaluazio-lan gehienek ez diete zeregin garrantzitsua eman jarduera publikoek birbanatzearen arloan dituzten xedeei, edo, besterik gabe, horiek alboratu dituzte, ekitatearen gaineko inplikazioak nahiko nabarmenak diren arren. Hala ere, paraleloki, desberdintasunari eta birbanaketari buruzko literaturak duela zenbait hamarkadatik corpus metodologiko eta enpiriko indartsua dauka. Horri esker, era guztietako politika publikoen eragin banatzaileak zehaztasunez zenbatesteko aukera ematen du. Inkestetatik nahiz administrazio-erregistroetatik jasotako mikrodatu-baseen erabilera orokorraren ondorioz, geroz eta gehiago dira diru-sarrera eta gastu publikoko programen eragin banatzailea aztertzen duten lanak, bai figura zehatzetan, bai multzo osoan (esaterako, *tax-benefit* ereduetan). Halaber, neurri arautzaileen analisiak ere geroz eta maizago agertzen dira. Lan honetan, mikrosimulazio-teknikek eremu honetan betetzen duten zeregin garrantzitsua nabarmentzen da. Izan ere, teknika horiek tresna garrantzitsua dira programa publikoen ebaluazioak egiteko, horien ondore banatzaileen azterketa kontuan hartuta, bai modu indepen-

dentean sortutako ondore esleitzaileri dagokienez, bai horiekin uztartuta. Hartara, ongizatearen aldaketen balorazioak lortzen dira, horrek dituen inplikazio banatzaileak kontuan hartuta. Amaitzeko, egileen hausnarketak azaltzen dira, honako gai honen gainean: finantza publikoen kalitatea sustatzeko orduan zein garrantzitsua den proposatzen den edozein neurri edo programaren ondorioak ex-ante baloratu ahal izateko aukera ematen duten ebaluazioak egiten dituzten mikrosimulazio-unitateak sortzea.

José María Durán Cabrék eta **Alejandro Esteller Morék** ikuspegi berritzailea dakarren artikulua bat idatzi dute. Hala, herritarrek sektore publikoaren jardura finantzatzeaz arduratzen diren zergen kalitatearen gainean duten ezagutzaren ikuspegia sartzten dute, kontuan hartuta balorazio hori funtsezko alderdia dela politika publikoak ebaluatzeko. Egileek bi inkestatako emaitzak erakusten dituzte, eta horien arabera frogatuta geratzen da Espainiako gizarteak oso gutxi ezagutzen dituela oinarritzko zerga-gaiak eta zergen deszentralizazioa. Talde sozialak aztertuta, maila sozioekonomikoaren eta generoaren arabera, emaitzetan heterogeneotasun handia ageri da. Beren iritziz, emaitza hauek ikusita pentsatzekoa da politika publikoen osaera, ziurrenik, herritarrek oinarritzko zerga-informazioaren gainean duten ezagutza-maila baxuaren ziozko lehentasun sozialetan oinarrituko dela eta horrek, era berean, eragina izango duela horien ondorengo ebaluazioan. Gainera, informazio-muga hauek, egileen iritziz, oztopo serioa izango dira zerga-deszentralizazioak eman ditzakeen abantailak erdiesteko, hau da, baliabideen esleipen hobea egiteko, gobernuen kontu-emate handiagoaren bidez. Lana ilustratzeko kasu zehatz bat ere aipatzen da. Izan ere, ezagutza-falta hori agerian geratzen da Ondarearen gaineko Zergaren kasuan. Nahiz eta figura hori ia ez den agertzen gure inguruko zerga-sistemetan, Espainiako hedabideetan oihartzun dezente dauka. Egindako azterketan zenbait paradoxa informatibo egiaztatu daitezke, esaterako zerga honen ziozko bilketaren igoeraren aldeko eskari sozialaren (gaur egun oso zerga murrizta da, bere gaitasun birbanatzailea bezala) eta zerga-ihesaren praktika nahiko hedatuen arteko kontraesana.

Bere artikuluan, **Antonio Jesús Sánchez Fuentesek** eztabaida garrantzitsua planteatzen du, zeinaren arabera beharrezkoa baita ebaluatzea zenbateko eraginkortasunarekin gastatzen dituzten Espainiako gobernu autonomikoek beren eskumeneko zerbitzu publikoak finantzatzeko dauzkaten baliabideak. Gobernu zentralaren azpiko izaera duten gobernu gehienak, arlo ekonomikoan, finantza-sistema autonomikoak ematen dituen baliabideen menpe daude (foru-araubidea duten erkidegoak salbu). Gobernu autonomikoen berezitasun horrek ikuspegi desberdina eskaintzen du gobernuak baliabideak gastatzeko orduan duten eraginkortasuna neurtzeko. Alderdi hori bereziki esanguratsua da gobernu autonomikoen kasuan, beren eskumenak finantzatzen dituzten baliabideak ez daudelako nagusiki beren zergen menpe, baizik eta mailakatze fiskalaren transferentzia horizontal eta bertikalen menpe. Gai honen oinarriak azaldu ondoren, egileak Espai-

niako autonomia-erkidegoetarako azterketa ilustratibo bat aurkeztu du, eskumen autonomikoko bi gastu-politika nagusietan oinarrituta: osasuna eta hezkuntza. Lortutako emaitzen arabera, ez bada kontuan hartzen esleitutako euro bakoitzaren aprobetxamendu-mailak desberdinak izan daitezkeela politika, aldi eta autonomia-erkidego bakoitzerako, ezin dira gizartearengandik hartutako baliabideak guztiz aprobetxatu eta, gainera, urratu egiten da ekitate horizontalaren printzipioa, zerbitzu publikoen finantzaketari lotuta, segun eta herritarrak zein lurraldetan bizi diren, zein lurraldetan ordaintzen dituzten zergak eta zein lurraldetan jasotzen dituzten gastu publikoko prestazioak. Lanak, amaieran, hainbat gomendio egiten ditu eskualdeko gastuaren eraginkortasunaren ebaluazioetako emaitzak gobernu autonomikoen finantzaketa-irizpideetara sartzeko beharrari buruz.

Monografikoko azken artikulua **Julia del Amo Valor**, **Marcos Martin Mateos** eta **Javier José Pérez Garcíak** idatzi dute. Bertan, politika publikoak ebaluatzen dira, ikuspegi makroekonomikotik, testuinguru europarra abiapuntu hartuta. Egileek egiturazko erreformen ebaluazioa eta Europar Batasuneko aurrekontu-planen koherentzia jorratzen dituzte, eta, beren esanetan, antzemandako emaitzak nabarmen hobetu dira Seihileko Europarrek gobernantza-mekanismo fiskala martxan jarri zenetik. Lehenik eta behin, artikulua Next Generation EU funtsen finantza-esparrua aztertzen du. Nabarmena da gobernantza-eredu berritzailea sartu dela, ex-ante eta ex-post ebaluazioan eta baliozkotzean oinarrituta. Hala ere, egileen esanetan, aldaketa horiek era egokian baloratzeko esperientzia oraindik ere mugatua da. Lehen analisian, literaturaren arabera, ex-ante definitutako aurrekontu-planen desbideraketa erregularrak («hutsuneak») antzematen dira oraindik ere, ex-post atera diren emaitzekin alderatuta. Alde horiek ezin dira azaldu soilik hasierako planen azpian dauden kasu makrofinantzarioen bidez. Bigarrenik, artikuluan egindako azterketaren arabera, Egonkortasun Programen eta Erreformen Plan Nazionalen esparruan egindako ex-ante ebaluazioak eginez gero, hobekuntzak egongo lirateke gardentasunean, zehaztasun gehiago argitaratuko lirateke zerga-agintaritzen balioespenei buruz, eta ebaluazio independenteak maiztasunez egin ahal izateko datuak argitaratuko lirateke. Egileek ondorioztatzen dutenez, ikuspegi makroekonomikotik, nahiz eta Next Generation EU funtsen finantza-esparruak egiturazko aldaketa bat sor dezakeen erreformen ex-post ebaluaziorik ia ez dagoen egungo egoeran, oraindik goiz da aldaketa horren benetako irismena baloratzeko.

Monografiko hau hiru lanekin osatzen da. Alde batetik, bi *policy letters*, lehena **Martin Weber** eta **Chrysoula Latopoulou**rena eta bigarrena **Alberto Ansuategi** eta **Iñaki Barredore**na, EBren kohesio-politikaren etorkizuneko esparrua jorratzen dutenak. **Martin Weber**rek eta **Chrysoula Latopoulou**k lehen *policy letter*rean galdetzen dute EBk Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesiorako ematen duen finantzaketa gehigarriak zer neurritan ekarriko dituen inbertsio berriak, besteak beste, administrazio-ahalmenaren

mugek eta baimenak emateko prozeduren iraupen luzeak ekar ditzaketen oztopoen aurrean. Bigarren *policy letter*rean, **Alberto Ansuategik** eta **Iñaki Barredok** emaitzen araberako ordainketak eta EBren kohesio-politikaren egitura-erreformek 2027tik aurrera izan dezaketen paperaz hausnartu dute.

Bestetik, *Otras Colaboraciones* atalean, **Iñigo Saizabalek** eta **José Ignacio Jacak** Euskal Autonomia Erkidegoan Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialak arintzeko hartutako neurri nagusiak deskribatzen dituzte. EAeko administrazioek hainbat talka-plan sustatu dituzte, besteak beste erreskate ekonomikorako funts bat eta erreskate sozialerako funts bat, bereziki zuzenduta gatazkaren ondorioak gehien pairatu dituzten sektoreei; horiei esker, etxe eta enpresen eroste-ahamenean eta familien zaugarritasunean inflazioak izandako ondorioak murriztu dituzte.

ERREFERENTZIAK

- AFONSO, A.; EBERT, W.; SCHUKNECHT, L.; THÖNE, M. (2005): «Quality of public finances and growth», *ECB Working Paper*, 438, European Central Bank (ECB), Frankfurt am Main.
- ALBI, E.; ONRUBIA, J. (2018): *Supervisión, control y evaluación para una gestión pública transparente*. Madrid: Instituto de Estudios Fiscales.
- ONRUBIA, J. (2005): «Evaluación y gestión eficiente en el sector público: aspectos organizativos e institucionales», *Ekonomiaz – Revista Vasca de Economía*, 60: 38–57.
- ONRUBIA, J.; SANTÍN, D. (2017): «Gestión pública y evaluación de políticas», en R. M. Urbanos Garrido (coord.), *Lecciones para después de una crisis. Estudios en homenaje al Profesor Albi*. Madrid, Instituto de Estudios Fiscales: 329-361.
- RODRÍGUEZ-VIVES, M. (2019): «The quality of public finances: where do we stand?», *Economics and Business Letters*, 8(2): 97–105.
- THÖNE, M. (2023): «The quality of public finances», en A. Afonso, J. T. Jalles y A. Venâncio (eds.), *Handbook on Public Sector Efficiency*. Cheltenham, UK: Edward Elgar Publishing, pp. 32–43.